



Kazetarien Euskal Elkargoak eta Euskal Kazetarien Elkarteak Cadena SER-ek jasandako zibererasoa salatzen dute

KEE-CVP-k eta EKE-AVP-k Cadena SER-ek jasandako birus informatiko baten eraso gaitzesten dute.

Irratiak berak igorritako komunikatuak, "konpainiaren barneko sistema informatiko guztiek kalte larria eta orokorra izan dutela" jakinarazten du. EAEko kazetaritza arloko bi erakunde profesional nagusiek adierazpen askatasuna aske informatzeko eskubidea urratzen dituzten erasoak salatu nahi dituzte.

Irrati bakoitzaren tokiko programazioa pixkanaka berreskuratzen ari bada ere, Kazetarien Euskal Elkargoak eta Euskal Kazetarien Elkarteak babesa luzatu nahi diete Cadena SER eta kaltetuak izan diren profesional guztiei, eta haienganako errespetu osoa eskatzen dugu.